



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2018/02/22

Bizkaiko errepide sareko bidesariak %2,5 igoko dira aurten

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak, 2018. urterako errepide azpiegitura sarearen parte bati jagokozan bidesarien zenbatekoak eguneratzeko Foru Dekretua aurkeztu dau gaur goizean. Pradalesek iragarri dauenez, batez besteko igoera %2,5ekoa izango da.

Foru Errepide Sarea erabilteagaitiko kostuaren igoerak Galdakao eta Gipuzkoako muga arteko AP-8 autopistan, Bilbo eta Santurtzi arteko Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarran eta Artxandako tuneletan izango dau eragina. Bizkaiko Foru Aldundiak urtero kalkuletan ditu bidesari horreen kostua, errepide horreetan egindako inbertsinoa eta mantentze lanen, ustiapenaren eta finantzaketaren kostuak kontuan izanda. Urte honetako urtarriletik indarrean sartu dan diru-laguntza erregimenari esker, mugea jarri jako Gipuzkoan dagozan sarbideetatik autopistara sartzen diran erabiltzaileen gastuari. Durangaldea eta Lea – Artibai eskualdeetan bizi diran gidarientzat onuragarria dan laguntza hori, autopistea Arrasaten hartzen daben elorriotarregana zabaltzeko aukerea be badago.

Euren erantzunetan, Batzarretako taldeek, bidesarien kostuaren igoerearen eta urte honetarako ibilgailuen trafikoan aurreikusten diran hazkundeen gaineko interesa erakutsi dabe. Podemos Bizkaia igoera KPI baino altuagoa dala nabarmendu dau, eta EH Bilduk, Hegoaldeko Saihesbideak, bere ustiapen gastuak estaltzeko behar adinako diru-sarrerak sortu barik jarraitzen dauela azpimarratu dau.

Foru errepideak eguneko gai zerrendako beste puntu bateko gaia be izan dira, Aldundiak hurrengo urteetan motoristentzako puntu baltzak ezabatzeko daukan strategiaren inguruko galdera bati be erantzun deusolako. Imanol Pradalesek “daborduko eginda dagon lanaren parte handia” azpimarratu dau. Foru Diputatuak adierazo dauenez, Aldundia errepideetako 85,8 kilometrotan jardun da 2006tik, 5,3 milioi euroko kostuagaz, 2017. urtearen amaierara arte. Urte honi begira, beste 14 kilometrotan jardungo dala iragarri dau, milioi erdi euro inguruko kostuagaz. Datozan lau urteei begira, Ezarpen Plana osatzen daben azkenengo 33 kilometroetan jardutea aurreikusten dau Foru Aldundiak.

MTV SARIAK OSPATZEAGAITIKO KANONA

Imanol Pradalesek Talde Popularreko Javier Ruizek egindako itaunari erantzun behar izan deutso, hasiera batean galdera hori Unai Rementeria Ahaldun Nagusiari zuzenduta egoan arren. PP taldeko ordezkariak, jakin gura izan dau zergatik ez zan hasieran jakinarazo gala hori Bizkaian egiteak 1,5 milioi euroko kostua izango ebalu. Foru Diputatuak kopuru horren ordainketa defendidu dau “ez enkante moduan, kanon moduan baino, holango ekitaldiak erakarri gura badira lehiaketan parte hartzeko ordaindu behar dan sarrerea”. Pradalesek gehitu dauenez, kontuan hartu beharko da, baita be, egindako inbertsinoaren itzulerea, ostalaritzan, garraioan, merkataritzan, zergetan eta Bizkaia marka mundu osora zabaltzean izango dauen eragin moduan.

EKINTZAILLETZAREN GAINEKO HITZARMENA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAGAZ

Eguneko gai zerrendako azkenengo puntuan EH Bilduren eskari bat landu da, Euskadiko Ekintzailetzarako Erakundearen arteko 2020 Planaren gainean Gipuzkoako Foru Aldundiagaz sinatu dan esparru akordioaren ingurukoa. Batzarreko talde horretako bozeroaleak modu positiboan balorau dau lurralde bien arteko ekimen bateratua, bi foru erakunde bietako bakoitxak proiekturako egin beharko dauen ekarpen ekonomikoaren inguruko interesa erakutsi dau. Pradalesek azaldu dauenez, akordioak eremu estrategiko bitan dauka eragina, ekintzailetza aurreratuan eta talentuaren kudeaketan, arlo horretan behar egiten daben Estatu Batuetako erakunde garrantzitsuakaz lankidetzan, *MassChallenge* eta *Cambridge Innovation Center* (CIC) izenekoakaz, hain zuzen be.

Foru diputatuak azaldu dauenez, Gipuzkoako Foru Aldundiagaz batera aurrera eroango dan proiektu horretan eragiketaren gastuak konpartidu egingo dira eta, hori dala eta, Bizkaiko Foru Aldundiak 110.000 euro aurreztuko ditu, 2017ko aurrekontuetan jasotakoagaz alderatuta. Gainera, arlo horretan Arabako Aldundiagaz egin daiteken lankidetzarako atea zabalik itzi ditu.

NOTA DE PRENSA

22/01/18

Los peajes de la red viaria vizcaína se incrementarán este año en un 2,5%

El Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha presentado esta mañana el Decreto de actualización de cuantías de los peajes sobre la red de infraestructuras viarias vizcaínas para el año 2018. Pradales ha anunciado un incremento medio del 2,5%.

El aumento del coste por la utilización de las Red Foral de Carreteras afecta a la autopista AP-8 entre Galdakao y el límite con Gipuzkoa, a la Variante Sur metropolitana entre Bilbao y Santurtzi, y a los túneles de Artxanda. La Diputación Foral de Bizkaia calcula anualmente el coste de estos peajes en función de la inversión realizada en estas vías y sus costes de mantenimiento, explotación y financiación. Por otra parte, desde enero de este año ha entrado en vigor un nuevo régimen de subvenciones que pone un límite al gasto de los usuarios que acceden a la autopista desde entradas ubicadas en Gipuzkoa. Esta ayuda, de la que se benefician los automovilistas residentes en las comarcas de Durangaldea y Lea-Artibai, podría hacerse extensiva, según ha anunciado Pradales, a los elorriotarras que acceden a la autopista por Arrasate.

En sus réplicas, los diferentes grupos junteros se han interesado tanto por el aumento del costo de los peajes como por los incrementos previstos para este año en volumen de tráfico de vehículos. Podemos Bizkaia ha puesto de manifiesto que la subida es superior al IPC, mientras que EH Bildu ha subrayado el hecho de que la Variante Sur siga sin generar ingresos suficientes para cubrir sus gastos de explotación.

Las carreteras forales han sido igualmente objeto de otro de los puntos del orden del día, ya que el Diputado de Desarrollo Económico ha respondido a una pregunta acerca de la estrategia del ente foral para eliminar los puntos negros para motoristas. Imanol Pradales ha precisado que “gran parte del trabajo ya se ha realizado”. El responsable foral ha explicado que la Diputación Foral ha intervenido desde 2006 en 85,8 km de vías, con un coste de 5’3 millones de euros hasta el cierre del ejercicio 2017. De cara a este año ha anunciado la intervención sobre 14 km adicionales, con

un coste aproximado de medio millón de euros. El ente foral tiene previsto intervenir sobre los últimos 33 km que completarían el Plan de Implantación en los próximos cuatro años.

CANON POR LA CELEBRACIÓN DE LOS PREMIOS MTV

Imanol Pradales ha tenido que responder, asimismo, a una pregunta planteada por Javier Ruiz, del Grupo Popular, que inicialmente estaba dirigida al Diputado General, Unai Rementeria, sobre la gala de entrega de premios MTV. El representante del PP se interesaba por los motivos por los que no se anunció que la celebración de esta gala en Bizkaia tendría un coste de 1,5 millones de euros. El Diputado Foral ha defendido el pago de esta cantidad “no como una subasta, sino como un canon, el coste de entrada si se quiere competir para atraer este tipo de acontecimientos”. Pradales ha añadido que será necesario contemplar igualmente el retorno de la inversión realizada en términos de impacto en la hostelería, el transporte, el comercio, la recaudación de impuestos y la propia proyección de la marca de Bizkaia en el mundo.

CONVENIO SOBRE EMPRENDIMIENTO CON LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

El último punto del día ha respondido a una solicitud de EH Bildu referida a un acuerdo marco de colaboración con Diputación Foral de Gipuzkoa, relativo al Plan Interinstitucional de Emprendimiento de Euskadi 2020. El portavoz de este grupo juntero ha valorado positivamente la iniciativa conjunta entre ambos territorios y se ha interesado por la aportación económica que cada una de las dos entidades forales deberá aportar al proyecto. Pradales ha explicado que el acuerdo afecta a dos ámbitos estratégicos, como son el emprendimiento avanzado y la gestión del talento, en colaboración con prestigiosas entidades norteamericanas que actúan en este ámbito, *MassChallenge* y *Cambridge Innovation Center* (CIC).

El representante foral ha explicado que la colaboración con la Diputación de Gipuzkoa supondrá compartir los gastos de la operación y, en consecuencia, un ahorro para la organismo foral vizcaíno de 110.000 euros respecto a lo presupuestado en 2017. Asimismo, ha abierto la puerta a una futura colaboración con la Diputación alavesa en este ámbito.